

KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

IZENBURUA: Lantalde osoaren ahalduntzea genero berdintasunean.

HELBURUAK: Euskaltzaleen Topaguneak emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean sinisten du eta berdintasun horretan aurrera pausuak emateko 2018an prozesu bat abiatu zuen. Bidea modu parte hartzailean egiteko erabakia hartu zuen erakundeak, lantaldeko kide guztien iritzi, bizipen eta harreman anitzak ordezkatuak izateko helburuarekin. Izan ere, prozesua diseinu eta dinamika parte-hartzaile batean oinarritzen bada, bere garapena eraginkorragoa izateko aukera handiagoa izango du, etorkizunera begirako eragina biderkatuz. Horretarako, ezinbestekoa da lantalde osoaren ahalduntzea eta formakuntza sustatzea.

ENTITATE ARDURADUNA: Euskaltzaleen Topagunea.

Emakumezko langileen kopurua: 22 **Guztiraren gaineko portzentajea:** %73,3

Gizonezko langileen kopurua: 8 **Guztiraren gaineko portzentajea:** %26,7

WEBGUNEA: <https://topagunea.eus/>

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK: Ez dago.

HASIERA EGUNA: 2018. urtetik gaur egun arte.

HARREMANETARAKO PERTSONA: Goiatz Urquijo Castañares (Genero berdintasun plangintzaren arduraduna) eta Maite Agirre Ena (Eraso sexistei aurre egiteko protokoloaren arduraduna).

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 688.746.991 (Goiatz) eta 674.345.738 (Maite)

HARREMANETARAKO E-MAILA: generoa@topagunea.eus

AZALPENA: Euskaltzaleen Topaguneak bere lehenengo Berdintasun Planean (2021-2023) jasotako lantalde osoa genero berdintasunaren alorrean ahalduntzeko aurrera eramandako formazio ekintzak zehazten dira:

- Emakumeentzat lidergoaren eta ahalduntzearen inguruko formakuntza. Honako eduki hauek landu ziren: sexu-genero sistema eta indarkeria, ahalduntzea eta lidergotza eta bileretan modu horizontalean parte hartzea.
- Gizonezkoek haien pribilegioen inguruan kontzientzia hartzeko formakuntza. Honako eduki hauek landu ziren: Berdintasuna eta maskulinitateak, eta maskulinitateak eta emakumeen ahalduntze prozesuak.

Formakuntza plan honi jarraipena emateko, hurrengo hilabeteetan honako formakuntza aurrera eramango dugu:

- Lantaldearen barne-komunikazioa lantzeko eta hobetzeko formakuntza saioa.

EMAITZAK (edo inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):

Jarraian formazio saioetan lantaldearen parte hartzea zehazten da:

- Emakumeentzat lidergoaren eta ahalduntzearen inguruko formakuntza: Saioa aurrera eraman zen momentuan (2021. urteko ekainaren 16an) 25 emakume zeuden Topagunean lanean. Horietako 22k parte hartu zuten saioan, %88 alegia.
- Gizonezkoek haien pribilegioen inguruan kontzientzia hartzeko formakuntza: Saioa aurrera eraman zen momentuan (2021. urteko ekainaren 23an) 10 gizon zeuden Topagunean lanean. Horietako 8k parte hartu zuten saioan, %80ak alegia.

Parte hartze datuetan ikusi daitekeenez, lortu da lantaldeak formazio saioetan modu aktiboan parte hartzea. Horren ondorio izan da, lantaldearen gehien-gehienak hausnarketa egiteko tartea hartu duela eta gaiaren inguruan ahaldundu eta jarduteko tresnak eta baliabideak jaso dituztela. Gizonezkoen kasuan, duten botere sinbolikoaz jabetzeko aukera izan dute eta haien pribilegioen inguruan kontzientziatzeko. Emakumezkoak, aldiz, lidergorako baliabideak jaso dituzte.

Ondorioz, uste dugu formazio saio hauek eragina izango dutela Topagunearen antolaketa-egituran genero parekidetasuna bermatzeko, nahiz eta oraindik oso goiz den emaitzak neurtu ahal izateko. Erakundearen lehenengo genero planaren (2021-2023) amaieran neurtuko da hartutako neurrien eragina.

ALDERDI BERRITZAILEAK: Euskaltzaleen Topaguneko baloretako bi dira mugimendua eta gardentasuna. Mugimenduari dagokionean, etengabeko berrikuntza dugu ardatz, une oro erronka berriak aukeratzen ditugularik. Genero berdintasunari dagokionean, ezinbestekoa da Topagunearentzat lantalde osoa gaiaren inguruan ahalduntzea, bai gizonezkoak eta emakumezkoak haien aldetik, eta baita lantalde osoa elkarrekin ere. Topagunearen antolaketa-egituran genero parekidetasuna lortzeko bidean, berebiziko garrantzi eta eragina izan dezakete gune partekatu zein bereiztuetan lanketak egin izana.

ARRAKASTA-FAKTOREAK: Genero berdintasunean lantalde osoa formatzea lortzearen gakoa, genero berdintasunaren lanketan hasieratik lantalde osoak parte hartu duela izan da, genero lantaldeko kideek soilik egin zezaketen lanketa izan beharrean. Genero plan bat egitearen erabakia, honen lanketa eta gauzatzea modu parte hartzailean bideratu du erakundeak, lantaldeko kide bakoitzari prozesuaren parte dela sentiaraziz; beraien iritzi, bizipen eta harreman anitzen arteko sinergian sinistuta.

PARTAIDETZA (jardunbide egokiaren irismena): Aurreko parte hartze datuetan ikusi bezala, lantaldeko kideen gehien-gehienak parte hartu zuten genero formazio saioetan, emakumeen %88 eta gizonezkoen %80, hain zuzen ere.

INTEGRATUA: Topagunearen 2020-2023 plan estrategikoaren helburuetako bat da langileen asebetetzea handitzea eta hori lortzeko zehaztutako estrategietako bat da genero berdintasunean sakontzea, zehazki genero plana eta indarkeria sexistaren aurkako protokoloa osatzea.

TRANSFERIBILITATEA: Aurreko lerroetan aurkeztu ditugun formakuntza-plana bestelako erakundeetan aurrera eramateko aukera dago.

BALIABIDEAK (pertsonek eta baliabide ekonomiko/finantzario eta materialak): Lantalde osoaren ahalduntzea genero berdintasunean helburua lortzeko baliabide ekonomiko zein pertsonalak beharrezkoak izango dira. Horrez gain, formazioak lan orduetan kokatzea eta formazioa eskainiko den ordutegia lantaldeko kide guztientzat egokia izatea bermatzea garrantzitsua da.

JARDUNBIDEA EGIAZTATZEN DUEN MATERIALA: Genero planak zehazten duen bezala, ekintza guztien parte hartze datuak jasoko dira eta parte hartu duten kideen balorazioa ere. Bestalde, Topaguneak genero berdintasunaren lanketan eginiko pausoen berri eman du bere webgunearen bitartez: <https://topagunea.eus/genero-berdintasun-plana/>

DATU PERTSONALEN BABESA

Informazio-klausula (lehen maila)

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean, DBEO), EUSKALITek honako informazio hau ematen du datu pertsonalen tratamenduari buruz:

Arduradunaren identifikazioa : Euskalit Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioa (www.euskalit.net).

Baimena ematen dut EUSKALITek eta Emakundek nire datuak trata ditzaten, Berdintasuna Kudeaketan bilatzailean eta sor daitezkeen komunikazioen eta esperientzia-trukeen kudeaketan parte hartzeko.

EUSKALITek komunikazioak bidali ahal izango dizkizu jarduera horiei buruz eta sustapen-izaerako beste jarduera batzuei buruz.

Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, datuen tratamendua mugatzeko, datuen aurka egiteko eta datuok transferitzeko eskubideak balia ditzakezu, lopd@euskalit.net helbidera idatzita.

Mesedez, bisitatu [pribatutasun-politika](#) helbidean, EUSKALITek zure datuak nola tratatzen dituen jakiteko eta zure eskubideen berri izateko.